



Esp. kodea: 2014SAPL0014

Gaia: PLENOA 2014-12-18
Hasiera eguna: 2014/12/10

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko abenduaren 18a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko abenduaren 2a egindako bileraren akta onartu du.

2.- BITERI ETA LAUBIDEKO APARKALEKUEN ESPARRUA USTIATZEKO, ADMINISTRAZIO EMAKIDARI DAGOZKION 2015 URTEALDIKO TARIFAK FINKATZEA.

Udalbatzarreko kideek aho batez onartu dituzte Biteri aparkalekuko gehieneko tarifak, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartuko direnak.

3.- KIROLA BATZORDE INFORMATIBOA SORTZEA

AUKEA erakunde autonomia desegitearen ondorioz, kirol zerbitzuak udal sail bat bezala kudeatuko dira 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera. Hori dela eta, udalaren antolamenduaren baitan Kirola batzorde informatiboa sortu da, aho batez udalbatzarrak hartutako erabakiaren arabera.

4.- 2015EKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA

Udalbatzarrak aho batez onartu du 2015eko Lanpostuen Zerrenda.

5.- 2015EKO PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA

Udalbatzarrak aho batez onartu du 2015eko Plantilla Organikoa

6.- 2015EKO APARTEKO ORDAINSARIEN AURRERATZERAREN INGURUKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA

Udalbatzarrak 2015eko aparteko ordainsarien aurreratzearen inguruko ebazpenaren berri hartu du, zeinak, besteak beste, abenduko nominaren ordainketa eguna aurreratzea eta 2015eko aparteko pagak urtarrilean (ekainekoa) eta ekainean (abendukoa) ordaintzea onartzen duen, 2012ko abenduko aparteko paga ez kobratzearen ondorioak gutxitze aldera.

7.- KIROLA BATZORDE INFORMATZAILEAREN LEHENDAKARITZA ESKUORDETZEAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA

Udalbatzarrak Kirola batzorde informatzailearen lehendakaritza Jose Erramun Askasibar Zendoia Tokiko Gobernu Batzarreko kideari eskuordetzen dion Alkatetzako ebazpenaren berri hartu du.



Esp. kodea: 2014SAPL0014

Gaia: PLENOA 2014-12-18
Hasiera eguna: 2014/12/10

8.- KIROLA EREMUARI DAGOZKION ESKUMENEN ESKUORDETZE GENERIKOAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA

Udalbatzarrak Kirola eremuan Jose Erramun Askasibar Zendoia Tokiko Gobernu Batzarreko kidearen alde egindako eskuordetze generikoari dagokion Alkatearen ebazpenaren berri hartu du.

9.- DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN ESKU LAGATZEA ETORKINEN HARRERA PROTOKOLOA DISEINATU ETA MARTXAN JARTZEKO LANA

Udalbatzarrak, aho batez onartu du, Debagoienako Mankomunitatearen esku lagatzea Harrera Protokoloa diseinatu eta martxan jartzeko ekimena (I. eranskina), Debagoieneko udaletan herritarrekin batera egingo dena. Horretarako, Mankomunitateak bi teknikari hautatu eta sei hilabetez lanaldi osorako kontratatuko ditu, horrek dakarren gastua Gipuzkoako Foru Aldundiak Mankomunitatearen alde onartuko duen dirulaguntzarekin finantzatzeko delarik.

10.- ERREKLAMAZIOAK ERABAKITZEA ETA 2015 URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak aho batez onartu du Ogasun Batzordearen diktamena, non egondako hiru erreklamaziori erantzunak ematen zaizkion eta ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko onartzen den. Erreklamazioak honako erakundeek aurkeztu dituzte: Garagartzako Ortu Ekologikoen elkarteak, MONDRAGON Automoción S. Coop enpresak eta HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkarten federazioak.

11.- 2015. URTEALDIKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEA PROPOSATZEA.

Udalbatzarrak, aldeko 12 boto eta kontrako 7 botorekin, Ogasun batzordeak diktaminatutako aurrekontu proposamenari hasierako onospena eman dio eta espedientea jendaurrean jartzen da 15 laneguneko epean, GAO n argitaratzen denetik.

12.- IRAILAREN 30EAN 2014 URTEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak honen berri hartu du.

13.- TGBAK 2014KO 3. HIRU HILABETEAN ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Udalbatzarrak TGBak 2014ko 3. Hiru hilabete onartutako hiru kreditu aldaketa espedienteren berri hartu du.

14.- GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA KOOP. ELKARTEAREN KAPITAL SOZIALERAKO EKARPEA EGITEKO PROPOSAMENA ONTZAT EMATEA, 2010EKO APIRILAREN 15EKO OHIKO BATZAR OROKORRAK HARTUTAKO ERABAKIAREN BAITAN

Udalbatzarrak ontzat eman du Garaia Berrikuntza Gunea, Koop. Elkarteak” 2010/4/15eko asanbladan onartutako kapitalerako 331.527€ko ekarpena era honetan ordaintzea “Garaia Berrikuntza Gunea, Elk. Koop.” elkarteari:

- 2015etik aurrera Garaia Berrikuntza Gunean sortuko diren zergekin konpentsazioaren bidez.



Esp. kodea: 2014SAPL0014

Gaia: PLENOA 2014-12-18
Hasiera eguna: 2014/12/10

15.- GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA; ELKARTEAREN GALERAK BORONDATEZKO ERRESERBA-FONDOAREKIN ESTALIKO DIRELA INFORMATUZ UDALBATZARRAK

Arrasateko Udalaren Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da, “GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA”ren baitan 2014ko ekitaldian % 21,22ko kapital sozialaren murrizketa onartu dela, Udalak bertan duen % 9,074 partizipazioaren balioa 2.676.618 €-koa izatetik 2.108.574,92 €-koa izatera pasatu duelarik.

16.- PSE-EE UDAL TALDEAREN BOZERAMALE ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

Alkateak Udalbatzarrari honen berri eman dio: 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera PSE-EE udal taldeko bozeramaile berria Francisco García Raya izango dela.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 18a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta